



Mondragon
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea




Mondragon
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

Ikasleen talentua sustatzeko gida:

Batxilergorako, Lanbide Heziketarako eta
unibertsitaterako hainbat aukera

**IÑAKI LARREA
PAULA ALVAREZ-HUERTA
ANA CARPINTERO
ALEXANDER MUELA
OXEL AZKARATE-ITURBE
JOSE RAMON VITORIA
BEÑAT FLORES**





Mondragon
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea



Aitorpena - Ez komertziala - Berdin partekatu (by-nc-sa):

Ez da onartzen jatorrizko obraren erabilera komertzialik ezta eratorritako obrena ere. Eratorritako obraren banaketa jatorrizko obra arautzen duen lizentzia berberarekin egin behar da.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta
Landa Ingurunekeo Departamentua



Mondragon
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

Ikasleen talentua sustatzeko gida:

Batxilergorako,
Lanbide Heziketarako eta
unibertsitaterako hainbat aukera

IÑAKI LARREA ^a
PAULA ALVAREZ-HUERTA ^a
ANA CARPINTERO ^a
ALEXANDER MUELA ^b
OXEL AZKARATE-ITURBE ^a
JOSE RAMON VITORIA ^a
BEÑAT FLORES ^a

a. Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatea
b. Euskal Herriko Unibertsitatea. Psikologia fakultatea

**IKASLEEN TALENTUA SUSTATZEKO GIDA:
Batxilergoako, Lanbide Heziketarako eta
unibertsitateko hainbat aukera.**

Egileak:

Iñaki Larrea, Paula Alvarez-Huerta, Ana Carpintero,
Alexander Muela, Oxel Azkarate-Iturbe, Jose Ramon
Vitoria eta Beñat Flores.

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta
Hezkuntza Zientzien Fakultatea.
2021eko urtarrila.

ISBN: 978-84-09-27352-2

Lege Gordailua: 00103-2021

Diseinua: Azk Taldea.

Inprimaketa: Gertu Koop.



**Mondragon
Unibertsitatea**

**Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea**



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta
Landa Ingurunekeko Departamentua

1

Sarrera
4-5

2

Talentua definitzen
6-15

3

Talentua sustatzeko
aukerak
16-54

Sarrera

1



Sarrera



Ikasleen talentuaren garapena hezkuntza erakundeen erronka nagusietako bat da. Ildo horretatik, ikerketek adierazten dute testuinguru aberatsa eskaintzea gakoa dela ikasleen talentuarekin lotutako gaitasunak garatzeko. Gida honek ikuspegi hori hartzen du oinarritzat, eta hezkuntza testuinguruak ikasleen talentua sustatzeko aproposagoak izateko bideak proposatu nahi ditu.

Helburu horrekin, bi ataleko gida bat proposatzen da. Batetik, talentuaren definizioa jaso, eta talentua osatzen duten dimentsioak zehazten dira. Azpimarratzekoa da talentuaren konzeptualizazio lan hori askotariko sektoreetako ordezkarien arteko eztabaidaren ondorio dela. Bestetik, talentuaren dimentsio horiek hezkuntza testuinguruetan sustatzeko bideak iradokitzen dira. Horretarako, aintzat hartu dira ikertzaileen ekarpenak eta talentuaren sustapenaren esparruko nazioarteko praktika esanguratsuak.

Gida batez ere Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta unibertsitate mailako erakundeei zuzendua da, etapa horietan gauzatzeko aproposak diren aukerak jasotzen baitira. Dena den, bide horiek gauzatzeko, ezinbestekotzat hartzen dugu testuinguruari egokitzea. Horregatik, aplikatu beharreko zerbait baino gehiago, nahi genuke gida hau talentuaz eta talentuaren sustapenaz gogoeta egiteko aitzakia edo gonbidapen gisa hartzea.



2

Talentua definitzen



Talentua definitzen



Talentua hitz ezaguna da, esanahi positiboarekin lotutakoa. Hala ere, kontzeptua bera era ezberdinean uler daiteke. Testuinguruaren arabera ere alda daiteke talentuaz zer ulertzen den. Horregatik, talentua sustatzeko gidarekin has-teko, ezinbestekoa iruditu zaigu talentua gidaren hartzaileen testuinguruan definitzea, haren eragileekin batera.




Talentuaren definizioa ikuspegi ahalik eta globalenetik egiteko, saio parte hartzaile bat antolatu zen askotariko sektoreetako agenteekin: finantzak, osasuna, hezkuntza, kultura, komunikazioa, administrazioa, industria, landa garapena, asmo sozialeko erakundeak, sindikatugintza, euskalgintza...

Agente horiekin egindako saio parte hartzailetik ateratako ideiak bildu, eta kontraste teorikoa egin zen nazioartean talentuaren gaia jorratu duten ikerketekin eta kontzeptualizazio lanekin. Ondorio gisa, talentuaren definizio hau izan dugu jomugan gida hau egiteko prozesuan:


“Pertsona talentudun bat izaki kooperatibo bat da, orientazio soziala eta elkarlanean aritzeko gaitasuna dituen; sortzailea ere bada, irudimena baitarabil ekintzak aurrera eramateko garaietan; ekintzailea ere bada, aktiboa baita ekimen berriak ezagutu edo abiarazteko; pertseberantea da, bere helburuei tinko eusteko; bere emozioak erregulatzen eta kudeatzen badaki; baita malgutasunez jokatzeko ere pertsona, ideia eta erronka berrien aurrean; eta, azkenik, pentsamendu analitiko-kritikoa dauka errealitatearen aurrean.”

Beraz, definizioan ikus daitezkeen bezala, talentuak hainbat dimentsio hartzen ditu bere baitan: kooperatiboa, sortzailea, ekintzailea, pertseberantea, emozioen erregulazioaren dimentsioa, dimentsio malgua eta kritikiko-analitikoa. Horrenbestez, talentua hainbat aldagaik osatutako kontzeptu gisa ulertzen dugu, irudi honek islatzen duen bezala.



Talentuaren definitzearekin batera, garrantzitsua iruditzen zaigu dimentsio horietako bakoitza ere definitzea, argi gera dadin talentuaz hitz egiterakoan zertaz gabilzan.

Dimentsio kooperatiboa



«Pertsona kooperatiboa gizakia eta jendartea kontuan hartzen duten balio eta jarrera indibidual, kooperatibo eta komunitarioak dituen pertsona da; burujabea, elkarkidetzan diharduena eta ekintzaile soziala: elkartasunean eta berrikuntzan oinarritutako eraldaketa sozialaren alde pentsatzen eta egiten duena».

Dimentsio sortzailea



«Pertsona sortzailea normalean beste batzuek ikusten ez dituzten konponbideak ikusteko gaitasuna duen pertsona da; irudimenez eta originaltasunez konponbide berri eta eraginkorrak ematen dituena, alegia; bere egitekoan, etengabe ari da elementuen arteko loturak eraikitzen, eta, subjektu aktiboa denez, errealitatearen konfigurazio berriak eraikitzen ditu».



Dimentsio ekintzailea




«Pertsona ekintzailea bere jarrera eta prestutasun ireki eta aktiboari esker ekimen berri baliotsuak diseinatzeko, abiarazteko eta kudeatzeko gai den pertsona da».

Dimentsio pertseberantea



«Pertsona pertseberantea bere helburua lortzeko bere arretari eta interesari epe luzean tinko eusteko eta horretan pasioz lan egiteko gaitasuna duen pertsona da».

Emozioen erregulazioaren dimentsioa



«Norberaren emozioak erregulatzeko dakien pertsona da, bere buruaren osasuna zaintzeko praktika barneratuta daukana eta norberaren emozioak erregulatzeko trebetasunari esker ongizate nahikoa daukana bere zereginak egin, estres egoerak gainditu, modu eraginkorren lan egin eta komunitateari ekarpen bat egin ahal izateko».

Dimentsio malgua



«Pertsona malgua irekita dago bere sinesmen eta balioak zalantzan jartzeko, horietarako irekitasuna eta prestutasuna dituzten ekintza, ideia edo pertsona berriek bultzatuta».





Dimensio kritiko-analitikoa



«Pertsona kritiko-analitikoa informazioa kontzeptualizatzeko, aplikatzeko, analizatzeko, laburtzeko, ebaluatzeko, ondorioztatzeko eta horren arabera jokatzeko gogoia eta informazioaren trataera sakon eta konplexua eskatzen duen prozesu konplexu hori gauzatzeko joera daukan pertsona da».

Beraz, Gipuzkoan, talentua hizpide dugunean, ulertzen dugu pertsona talentudunak kooperatiboak, sortzaileak, ekintzaileak, pertseberanteak, malguak, emozioen erregulazioan gaituak eta kritiko-analitikoak direla. Jomuga dugu, beraz, dimensio horiek sustatzeko dinamikak bultzatzea.

Talentua sustatzeko aukerak

3



Talentua sustatzeko aukerak



Gida honen bidez, ekarpena egin nahi da talentuaren gaia hezkuntza zentroetara eramateko. Gogoeta bultzatu nahi da gaiaz, baita ikuspegi inklusibo batetik ikasle guztien talentua sustatzeko aukerak iradoki ere. Horretarako, gaian adituak direnen ekarpenak aztertu eta aintzat hartu nahi izan dira. Ondorioz, hurbileko zein nazioarteko ikerketak eta praktika esanguratsuak hartu dira kontuan gida hau egiteko.

Gidan, talentua orokorrean edo talentuaren dimentsioaren bat sustatzeko aproposak izan daitezkeen aukerak jasotzen dira. Nabarmendu nahi dugu aukerak direla, eta ez ezinbestean egin beharrekoak. Ulertzen dugu hezkuntza zentro batek talentua sustatu nahi badu proposamenak gara ditzakeela, baina betiere bere errealtatera egokituta eta ondo doituta.

Gidaren formatuari dagokionez, arina izateko hautua egin da. Horrenbestez, talentua sustatzeko aukera bakoitzarekin batera, informazio zehatza emango da, eta, bidenabar, sakontzeko kanpo baliabideak iradokiko dira, interesa duen orok informazio gehigarria izan dezan. Zehazki, hauxe izango da talentua sustatzeko aukera bakoitzarekin jarraituko den egitura:

	IZENBURUA
Zertarako bereziki?	Nagusiki landuko den dimentsioaren ikurra
Justifikazioa	Zergatik den garrantzitsua
Gauzatzeko aukerak	Gelara eramateko aukera posibleak
Sakontzeko	Sakondu nahi duenarentzako informazio gehigarria



Aukerak banaka ikusi aurretik, hona hemen talentua sustatzeko proposamen edo aukera guztiak jasotzen dituen zerrenda:

1.	Adierazpen giro aproposa	
2.	Aniztasunarekiko kontaktua	
3.	Askotariko proposamen eta baliabideak	
4.	Autonomiaren parte hartzea eta garapena	
5.	Autorregulazio emozionalerako metodologiak	
6.	Autorregulaziorako eta autoebaluaziorako tresnak	
7.	Diziplinarteko ekimenak	
8.	Ebaluazio hezigarria, autorregulatua eta gogoetatsua	
9.	Emozioen ulermena, adierazpena eta partekatzea	
10.	Enpatiaren lanketa gatazka egoeretan	
11.	Enpresa eta erakundeekiko harremana	
12.	Errealitatearekin lotutako proiektuak	
13.	Esplorazioa eta esperimentazioa oinarri	
14.	Gaitasunen neurriko proposamenak	
15.	Genero ikuspegia	
16.	Hausnarketa eta analisi intrintsekoa	
17.	Ikas komunitatea	
18.	Ikasleen jarraipena	
19.	Ikasleen motibazioa	


20.	Ikaskuntza esperimentalak	 
21.	Ikerketa lana	   
22.	Informazioaren trataera eta kudeaketa kritikorako trebetasunak	
23.	Ingurune aproposen diseinua	 
24.	Irakasle erraztailea	   
25.	Kalitatezko feedbackak	   
26.	Lankidetzazko ikaskuntza-metodoak	 
27.	Nazioarteko esperientzia	  
28.	Norberaren autonomiatik lankidetzara	  
29.	Norberaren zaintzaren kultura eta praktika	
30.	Proiektu soziokomunitarioak	  
31.	Proposamenen helburua	  
32.	Prozesuen garrantzia: Design Thinking	  
33.	Talde lanean trebatzeko jarduerak	   
34.	Tutoretza eta orientazioa	



1. Adierazpen giro aproposa



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Adierazpen giroek positiboki garatzen dute emozioak erregulatzeko gaitasuna. Hizkuntza emozionala erabiltzen trebeena diren ikasleek hobeto erregulatzen dute beren adierazpen emozionala egoera estresagarrietan. Ikasgelan esperientzia emozionala eztabaidatzea lagungarria izan daiteke erregulazio estrategiak garatzeko, eta, beraz, emozioak erregulatzeko estrategia bat izateko. Adibidez, idatzizko adierazpen emozionala sustatzeak, norberaren kezkei buruz idazteak emaitza akademikoak hobetzen ditu. Oro har, adierazpen aukerak sustatzeak ikasleei lagundu diezaike beren garapen emozionala hobeto ezagutzen, eta irakasleentzat tresna baliagarria izan daiteke, ikasleak sakonago ezagutzeko aukera ematen baitu.

Gauzatzeko aukerak

Tutoretzaren bidez, bakarkako eta talde txikietako jarraipenaren bidez, espazio eta tarreak sortuz, adierazteko askatasuna, unea, aukerak eskainiz, epaitu gabe edo emoziotegia erabiliz.

Sakontzeko

Emoziotegia:
https://www.palabrasaladas.com/pdf/libro/emoziotegia_muestra.pdf


Universo de emociones:
<https://universodeemociones.com/producto/libro-universo-de-emociones/>

Adimen emozionala, beste hizkuntza bat:
<http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20100403/adimen-emozionala-beste-hizkuntza-bat>

2. Aniztasunarekiko kontaktua



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Aniztasunari esker, askotariko esperientzien, indarguneen eta ideien topagunea da ikasgela. Desberdintasunak egon daitezke arrazan, etnien, sexu-orientazioan, generoan, egoera sozioekonomikoan, adinean, gaitasunetan, erlijio- edo politika-sinesmenetan, ezagutzetan... Desberdintasun horiek esploratzea eta hezkuntza prozesuetan txertatzea aberatsa da ikasleen gaitasunen garapenerako.

Gauzatzeko aukerak

- Ikaskuntza zerbitzua
- Ikasteko komunitate heterogeneoetan lan egitea
- Nazioarteko esperientziak / Erasmus+ Virtual Exchange
- Ikuspegi askotarikoak bultzatu eta gelan integratu
- Komunitatearekiko kontaktua
- Kulturarteko ekitaldiak

Sakontzeko

Schuelka, M. J., Johnstone, C. J., Thomas, G. & Artiles, A. J. (ed.). (2019). *The SAGE handbook of inclusion and diversity in education*. SAGE Publications Limited.

Ikastetxean eta ikasgelan inklusioa abian jartzeko orientabideak:

<https://www.euskadi.eus/hezkuntza-inklusioa-aniztasunaren-trataera/web01-a3hinklu/eu/>

ERASMUS+ Virtual Exchange: <https://europa.eu/youth/erasmusvirtual>

3. Askotariko proposamen eta baliabideak



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Pertseberantzia eta pasioa sustatzerakoan, lehentasuna ikasleen interesa da. Pasioa egiten duzunaz zinez disfrutatzen duzunean hasten da, eta atsegin duzun horretan azaleratzen dira ideia sortzaile eta ekintzaileak. Horregatik eta ikasleen aniztasuna kontuan izanik, askotariko proposamenak eskaintzeak positiboki eragiten du pertseberantzia, beren interesen arabera aukeratzeko modua izango baitute. Era berean, garrantzitsua da ikasleei eskaintako baliabide eta jardueren aniztasuna, izaeran, forman eta abarretan: testu idatziak, ahozko azalpenak, eskemak, mapa kontzeptualak, ikus-entzunezkoak, bakarkako zein taldekako jarduerak... Baliabide askotarikoak erabiltzea garrantzitsua da ikasle guztiek beren prozesuari eusteko modua izan dezaten.

Gauzatzeko aukerak

Ikasleak bere jakin-minaren arabera gaia garatzeko aukera ematen duten interesetan oinarritutako metodologiak erabil daitezke, edo ikasleei zenbait gai/erronka eskain dakizkioke aukeratzeko. Askotariko baliabide eta jarduerak: testu idatziak, eskemak, mapa kontzeptualak, ikus-entzunezkoak, ahozko azalpenak, bakarka, taldeka, sintesi lanak, gogoeta lanak, lan sortzaileak...

Sakontzeko

Trujillo, F. (2012). *Propuestas para una escuela en el siglo XXI*. Educación active.


EntreComp: The entrepreneurship competence framework. <https://ec.europa.eu/jrc/en/entrecomp>

INTEF. Instituto Nacional de Tecnologías Educativas y Formación del Profesorado: <https://intef.es/recursos-educativos/>

4. Autonomiaren parte hartzea eta garapena



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Emozioak erregulatzen ikastearekin oso lotuta dagoen faktore bat da norberaren autonomiaren parte hartzea eta garapena. Parte hartzen duten pertsonak arduratsuagoak dira, gogobetetze pertsonal handiagoa sentitzen dute, eta harreman hobea dute beren gizarte ingurunearekin. Hala, ikusi da autonomiaren eta kidesasun sentimenduaren inguruan egituratutako hezkuntza inguruneak egokiak direla emozioak erregulatzeko estrategia eraginkorrak garatu ahal izateko. Kidesasun sentimenduak ikaskuntza kooperatiboaren bidez landu daitezke ikasgelan, eta, gainera, aukera bat da motibazioa eta emozioak erregulatzeko estrategia hobekak garatzeko.

Gauzatzeko aukerak

Portfolioak, ikaste karpetak, ikaste kontratuak, ikasgai edota proiektuen aukeraketa, ibilbidearen antolaketa pertsonalerako eskumena...

Sakontzeko

Colén, M.T., Giné, N., & Imbernón, F. (2006). La carpeta de aprendizaje del alumnado universitario. La autonomía del estudiante en el proceso de aprendizaje. Octaedro. <https://labur.eus/Hqbjm>

Kamii, C., & López, P. (2014). La autonomía como finalidad de la educación. Journal for the study of education and development, *Infancia y aprendizaje*, 18, 3-32.

5. Autorregulazio emozionalerako metodologiak



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Erregulazio emozionalaren ikaskuntzari irakaskuntzaren zeharkako ikuspuntutik heldu behar zaio, batez ere emozioen adierazpena, ulermena, kudeaketa eta erabilera egokia sustatzen dituzten programen bidez, hainbat teknikaren bidez, zeinetan honako hauek sartzen baitira: parte hartzea eta autonomia pertsonalaren garapena, enpatia, arazoaren konponketa, adierazpen artistikoa eta/edo mindfulness-a.

Gauzatzeko aukerak

Aurrez aipatutako estrategien lanketak sustatuko du emozioen erregulazioa. Ikasleen edota taldearen araberako aukeraketa egitea gomendatzen da. Askotariko aukerak daude: mindfulness-a, adimen emozionalako programak edota estrategiak, eta abar. Badaude gelan bertan modu sinplean egin daitezkeen praktikak eta programak; egunean 5-10 minutu landuta, nahikoa izaten da entrenamenduarekin hasteko, baina, nolana ere, programa eta baliabide ugari dago.

Sakontzeko

Aulas felices programa:
<https://labur.eus/H7dgw>

Respira Vida:
<http://www.respiravida.net/mindfulness-educacion/3-maneras-f%C3%A1ciles-en-las-que-mindfulness-puede-ayudar-tus-hijos-manejar-el>

Escuelas Despiertas:
<https://escuelasdespiertas.org/mindfulness-en-educacion/>

Crecer respirando programa:
<https://www.sukhamindfulness.com/crecer-respirando/>

6. Autorregulaziorako eta autoebaluaziorako tresnak



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Askotarikoak dira autoebaluazioaren eta autorregulazioaren onurak ikaskuntza prozesuan. Mesedegarriak dira, adibidez, pertseberantziaren garapenerako, biek laguntzen baitute autokontzientzia garatzen eta modu objektiboan egindakoaren, falta denaren eta emaitzen arteko informazioa aztertzen. Autorregulazioak eta autoebaluazioak egindakoaz ohartu eta haren ondorioez jabetzeko bideak zabaltzen ditu.

Gauzatzeko aukerak

- Errubrikak
- Portfolioa
- Testak
- Egunerokoak
- Autokonfrontazioak eta norberari buruzko gogoeta

Sakontzeko

Galende, I. (2011). Herramientas para la autorregulación del aprendizaje; Berritzegune Nagusia: <https://es.slideshare.net/bgune20/herramientas-para-la-autore>


SantaCruz, S. (2020). Portfolioak ikasleen jarraipenerako: hainbat gako: https://www.youtube.com/watch?v=7YVbn_A1nYs

SanMartí, N. (2020). Cómo promover una autoevaluación útil y gratificante: https://www.youtube.com/watch?v=ySB_9blsoFI

7. Diziplinarteko ekimenak



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Diziplinartekotasuna ez da diziplina askoko jakintza metaketa bat, baizik eta zenbait jakintza elkarren osagarri egitea, osotasun baten aldeak balira bezala. Diziplinartekotasuna hezkuntzan txertatzearen helburua zera da: ikasleei munduaren gaineko ikuspegi holistiko eta dinamikoa eskaintzea, egungo eta etorkizuneko erronka globalei modu eraginkorragoan erantzun ahal izateko.

Gauzatzeko aukerak

- Talde berean zenbait diziplinatako kideak integratuz, bakarka nekez lor daitezkeen gaitasun, esperientzia eta jakintza osagarriak sortzeko.
- Zenbait jakintza arlo batzen dituen proiektu bateratu bat sortuz, ikasleengan ideia eta kontzeptuen arteko loturak sustatzeko.

Sakontzeko

Lorenzo, R. (2017). How diversity makes teams more innovative: https://www.ted.com/talks/roocio_lorenzo_how_diversity_makes_teams_more_innovative

Clayton, M., Hagan, J., Ho, P.S., & Hudis, P.M. (2010). Designing Multidisciplinary Integrated Curriculum Units: https://casn.berkeley.edu/wp-content/uploads/2019/03/LL_Designing_Curriculum_Units_2010_v5_web-1.pdf

Espinosa-Mirabet, S., Soler i Ortega, M., Escoda, M.L., Puig-Bargués, J., & Ferrer Real, I. (2015). Un modelo para diseñar aprendizajes mediante proyectos multidisciplinares. REDU Revista de docencia Universitaria, 13(3), 73-89.

8. Ebaluazio hezigarria, autorregulatua eta gogoetatsua



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Garrantzitsua da ikaskuntza ikasleak inplikatzeko eta motibatuzko eraikuntza prozesu gisa ulertzea, haiek baitira, azken batean, beren prozesuaren protagonista. Ebaluazioak ere ildo beretik joan behar du, horri esker susta baitaitezke ikasleen ikaskuntza, autorregulazio pedagogikoa, akatsen kudeaketa eta arrakastaren finkatzea.

Gauzatzeko aukerak

- Ikaslearen portfolioa
- Egunkari gogoetatsuak
- Berariaz ebaluatzeko saioen antolaketa eta garapena
- Autoebaluazio, koebaluazio eta heteroebaluazio ariketak

Sakontzeko

Moreno-Pinado, W.E. & Velázquez Tejada, M.E. (2017). Estrategia Didáctica para Desarrollar el Pensamiento Crítico. REICE. *Revista Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 2017, 15(2), 53-73.

Barberà, E.(2005). La evaluación de competencias complejas: la práctica del portafolio. *Educere*, 9 (31), 497-504.

Collazo, L.M., & Geli de Ciurana, A. M. (2017). Avanzar en la educación para la sostenibilidad. Combinación de metodologías para trabajar el pensamiento crítico y autónomo, la reflexión y la capacidad de transformación del sistema. *Revista Iberoamericana de Educación*, vol. 73, 131-154.

Sánchez, N. & González, N. (2015). El uso del portafolio para desarrollar el aprendizaje cooperativo y la evaluación formativa en educación ambiental. Un estudio de caso en bachillerato. *Profesorado, Revista de currículum y formación del profesorado*, 19, <http://www.ugr.es/local/recfpro/rev192COL9.pdf>

9. Emozioen ulermena, adierazpena eta partekatzea



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Emozioak ezagutu eta erabiltzeko edo besteen sentimenduak interpretatzeko aukera izatea oinarritzko gaitasun bat da garapen pertsonalerako, harremanetarako nahiz ongizaterako. Emozioak ezagutzen badira, horiek kontrolatzeko aukera egongo da. Horretarako, emozioei izena jarri behar zaie. Kontzienteak ez diren emozioak ez kontrolatzeko arriskua dago, eta horrek eragin negatiboa izan dezake. Emozioak hautemateak lotura estua du ongizatearekin.

Gauzatzeko aukerak

- Emozioak izendatzeko, hiztegi emozionala lantzea
- Irakurketak, filmak (Del Revés)...
- Bakarkako nahiz talde txikietako tutoretzetan solasaldiak egitea
- Egunerokoak
- Kontzientzia ariketak (mindfulness-a, barnekotasuna...)

Sakontzeko


Adimen emozionala jardunean; gazteekin harreman hobea izateko tresnak: https://www.gazteaukera.euskadi.eus/r58-ovjconte/eu/contenidos/noticia/irakur_gida_adimen_emozionala/eu_def/index.shtml

Eskola Bakegune: <https://www.eskolabakegune.euskadi.eus/eu/web/eskolabakegune>

10. Enpatiaren lanketa gatazka egoeretan



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Inteligentzia interpertsonalaren eta emozionalaren lanketa egiteko baliagarria izan daiteke. Enpatia beharrezkoa dugu beste pertsonekin harreman positiboak eraikitzeko; alegia, beste pertsonen egoera berean jartzeko, besteen sentimenduak eta pentsaera ulertzeko eta horren arabera jokatzeko ikasteko gaitasuna lantzeko. Harreman horietan, garrantzitsua da besteak modu aktiboan entzuten ikastea eta norberaren ikuspuntua modu asertiboan komunikatzea.

Gauzatzeko aukerak

Ikasgelan gatazken kudeaketa eskatzen duten proposamenak eraiki arazo-egoera errealak eta askotariko ikuspegietako rolak banatuta. Gatazka egoera horietan beste pertsonak bizi izan dituzten emozioak ulertzeko ariketa egin eta horien arabera nola jokatu hausnartzeko denbora eskaini.

Sakontzeko

Malti, T., Chaparro, M.P., Zuffianò, A., & Colasante, T. (2016). School-Based Interventions to Promote Empathy-Related Responding in Children and Adolescents: A Developmental Analysis, *Journal of Clinical Child & Adolescent Psychology*, 45:6, 718-731, DOI: 10.1080/15374416.2015.1121822/

Guerrero, R. (2018). Qué es la empatía y cómo desarrollarla en los niños: <https://www.youtube.com/watch?v=EPqOEWwkXyo>

Molina, B. (2013). Impulsando la empatía entre los jóvenes: <https://www.youtube.com/watch?v=duXTJxPvB6g>

Start empathy: <https://startempathy.org/>

11. Enpresa eta erakundeekiko harremana



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Herritarrak ekintzaile izateak esan nahi du arazo sozialen aurrean irtenbide berritzaileak formulatuko dituztela eta balio sozioekonomikoa duten produktuak diseinatuko dituztela. Enpresa eta erakundeekin izango duten kontaktua baliatuz, ikasleen grina ekintzailea hobetu daiteke. Era berean, interesgarria da ikasleen ekoizpenak gizarteak dituen behar zehatzei erantzutera bideratzea.

Gauzatzeko aukerak

- Ikaskuntza zerbitzua
- Erasmus+ internship programa
- Formakuntza duala eta praktika birtualak
- Inguruko enpresa eta erakundeetarako irteerak
- Ikasleen lanak balizko aplikazio erreala izatea: transfer of learning

Sakontzeko

eTwinning is the community for schools in Europe:
<https://www.etwinning.net/en/pub/index.htm>

EntreComp: The entrepreneurship competence framework:
<https://ec.europa.eu/jrc/en/entrecomp>

Praktikak / boluntariora / nazioarteko praktiketarako beka:
<https://www.gazteaukera.euskadi.eus>

Hajian, S. (2019). Transfer of Learning and Teaching: A Review of Transfer Theories and Effective Instructional Practices. *IAFOR Journal of Education*, 7.
<https://files.eric.ed.gov/fulltext/EJ1217940.pdf>

12. Errealitatearekin lotutako proiektuak



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza ikasketa esanguratsua sustatzeko erabil daiteke. Ikasten ikasteko ikaslea bere ikaskuntza prozesuaren jabe egitea bilatzen da, eta ikertzeraz eta pentsatzeraz bultzatzen. Bide horretan, ikaskuntza prozesuak garrantzi handiagoa hartzen du garatzen den produktuak edo emaitzak baino. Baliagarria da, adibidez, autoestimua, autoefikazia, kooperazioa eta trebetasun sozialak lantzeko.

Gauzatzeko aukerak

Gai bati buruzko galdera bat proposatu, eta ikasleen aurrezagutzetatik abiatuta gaian sakontzeko ikerketara bultzatzen dira ikasleak. Talde txikitik antolatuta eztabaidatzen eta zehazten dira proiektuaren helburuak eta produktuak. Informazioa bilatu, hautatu eta ordenatu ondoren, analisiak eta sintesiak egin eta hasierako galderari erantzuten zaio, proiektua aurkeztuz eta ebaluazioa eginez.

Sakontzeko

Recursos aula (2019). Aprendizaje basado en proyectos: <https://www.youtube.com/watch?v=hrBjKEu5EtE>


Aula Planeta (2015). Cómo aplicar el aprendizaje basado en proyectos en diez pasos: <https://www.aulaplaneta.com/2015/02/04/recursos-tic/como-aplicar-el-aprendizaje-basado-en-proyectos-en-diez-pasos/>

Vergara Ramirez, J. J. (2015). *Aprendo porque quiero: El aprendizaje basado en proyectos (ABP), paso a paso.* Ediciones SM.

13. Esplorazioa eta esperimentazioa oinarri



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Ikasgela hareazko kutxa batean jolasteko gunea balitz, ikasle talde txikiek aukera izango lukete euren nahiak deskubritu eta esperimentatzeko, estrategia eta teknika berriak probatuz gaitasun berriak garatzeko helburuarekin. Proiektu luze batean hasieratik lan eginez gero, ohiko eta monotono bihurtzeko arriskua dago. Horregatik, esplorazioak eta esperimentazioak aukera ematen dute energiiaz bete, taldearekin konektatu eta sormena lantzeko, testuinguru erraztaile bat sortzeko bidean.

Gauzatzeko aukerak

Prototipoak eraiki: ideiak komunikatzeko modurik eraginkorrena ideia horiek ikasleen garunetatik atera eta egitate bihurtzea da, hots, prototipo bat eraikitzea. Mota askotariko prototipoak sor daitezke; besteak beste, marrazkiak, maketak, story-boardak, bideoak, role-playingak. Helburua zera da: prototipo azkar bat sortzea material merke eta eskuragarriak erabiliz, ideia baten indarguneak eta hobetzekoak lehenbailehen identifikatzeko.

Sakontzeko

Bujec, T. (2010). Build a tower, build a team: https://www.ted.com/talks/tom_wujec_build_a_tower_build_a_team

Human-Centered Design 201: Prototyping: <https://www.acumenacademy.org/course/human-centered-design-prototyping>

14. Gaitasunen neurriko proposamenak



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Ikasleari egindako proposamenak helburu argi bat izatea garrantzitsua da denboran mantentzeko. Halaber, haren gaitasunen neurria egokitutakoak izan behar dute, ez errazegiak, horrek ez baitu interesik eta esfortzurik sustatzen, ezta zailegiak ere, etsipena ekar dezaketelako.

Gauzatzeko aukerak

Bereziki metodologia aktiboak hobesten dira, halakoek ematen baitute aukera gehien proposamena ikasleen gaitasunetara egokitzeko; erronkak lortzeko metodologiak, eta arazoak ebazteko eta proiektuak garatzeko metodologiek modu zuzenean erantzuten diete premisa guztiei, modu egokian proposatuz gero.


Sakontzeko

Challenge Based Learning:
<https://www.challengebasedlearning.org/>

Erronketan oinarritutako ikaskuntza:
 Ethazi: <https://ethazi.tknika.eus/eu/>

Computers (2017). Challenge Based Learning.
 Monografikoa:
<https://ieeexplore.ieee.org/xpl/tocresult.jsp?isnumber=7971854>

15. Genero ikuspegia



<p>Zertarako bereziki?</p>	
<p>Justifikazioa</p>	<p>Generoaren gaineko aurreiritziak eta estereotipoak hezkuntza ziklo osoan erronka izatea garrantzitsua da Lehen Hezkuntzatik hasi eta bizitza osoan zeharreko ikaskuntzara; genero ikuspegia aintzat hartzeak bizitzako beste esparruetako genero desorekak murriztu ditzake. Generoaren ikuspegiak eskatzen du genero berdintasunaren inguruko gaiak jarduera guztietan txertatzea.</p>
<p>Gauzatzeko aukerak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Estereotipoei eta genero rolei buruz eztabaidatzea • Kokapenei buruzko bereizkeriazko jokoak • Ikuspegi sexistarik ez duten materialen, baliabide pedagogikoen eta proiektuen hautaketa • Arteari buruz generoaren ikuspegitik ikasteko proiektuak
<p>Sakontzeko</p>	<p>Frei, S. & Leowinata, S. (2014). <i>Gender Mainstreaming Toolkit for Teachers and Teacher Educators</i>. Wong. https://www.varkeyfoundation.org/media/4459/gender-mainstreaming-toolkit-1-copy.pdf</p> <p>European Institute for Gender Equality. https://eige.europa.eu/gender-mainstreaming/what-is-gender-mainstreaming</p> <p>DigiPippi — the coolest girls' club in Denmark: https://eige.europa.eu/gender-mainstreaming/good-practices/denmark/digipippi-coolest-girls-club-denmark</p>

16. Hausnarketa eta analisi intrintsekoa



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Modu kritikoan pentsatzeko beharrezkoak diren gaitasun kognitiboen garapenean, edozein zirkunstantziaren aurrean arreta jarri, aztertu eta zehatz-mehatz epaitzeko aukera emango duen ikerketa eta esplorazioaren beharra azpimarratzen da. Kasu honetan, hausnarketa eta analisi intrintsekoak gakoak dira ikaste prozesuan, ezagutza jakin batzuk erregistratzeko eta ideia berriak garatzeko.

Gauzatzeko aukerak

Oro har, irakasleak galdera esanguratsuak egin behar ditu, ikasleak hausnartu eta analisi sakona egin dezan. Galderak askotarikoak izan daitezke: argitzeko, usteak eta iturriak aztertzeko, arrazoitzeko, ebidentziak emateko, ondorioztatzeko, ikuspuntu ezberdinak azaleratzeko, eta abarretarako. Galderak egiteko testuinguru egokiak sortu behar dira, proiektuetan, eztabaidetan edo egunerokotasunean sor daitezkeen ohiko egoeretan.

Sakontzeko

The Foundation for Critical Thinking. High School Teachers:
<http://www.criticalthinking.org/pages/high-school-teachers/807M>

López Aymes, G. (2012). Pensamiento crítico en el aula. *Docencia e Investigación*, 22, 41-60.


Merchán Price, M. S. (2012). Cómo desarrollar los procesos del pensamiento crítico mediante la pedagogía de la pregunta. *Actualidades Pedagógicas*, (59), 119-146.

Ten Dam, G., & Volman, M. (2004). Critical thinking as a citizenship competence: teaching strategies. *Learning and Instruction*, 14, 359-379. doi:10.1016/j.learninstruc.2004.01.005

17. Ikas komunitatea



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Ikas komunitatea helburu akademiko komunak partekatzen dituen eta irakasleekin batera edo lankidetzan aritzen den ikasle talde txiki bat da. Ikas komunitatearen ereduak curriculumarekin koherentzia handiagoa izateko, talde aktiboa izateko eta ikasle eta irakasleen arteko elkarreragina sustatzeko balio du.

Gauzatzeko aukerak

- Gaiarekin lotutako ikastaroak
- Taldeak sortzea gai-arloen arabera
- Hedabide, irrati, egunkari bat sortzea
- Irakurketa klubak
- Batzarrak
- Helburu, arau eta jokamoldeak adosteko lana

Sakontzeko

Elboj, C., Puigdellívol, I., Soler, M., & Valls, R. (2002). *Comunidades de aprendizaje. Transformar la educación*. Barcelona: Graó

UNESCO. Guía Comunidades de Aprendizaje. http://www.unesco.org/new/fileadmin/MULTIMEDIA/FIELD/Santiago/pdf/Guia_4_web_educacion_emergencias.pdf

Vega González, M. (2020). *Creando comunidades de aprendizaje en la Universidad. Una propuesta de formación experiencial*. Morata.

18. Ikasleen jarraipena



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Gaur egungo gizarte ziurgabe eta aldakorrean garatzeko, hezkuntza pertsonalizatua oinarrizkoa bilakatzen da. Pertsonalizazio horren mesedean, ikasleen jarraipen estua gakoa da hezkuntza-bikintasunerako eta ikasleen garapen integralerako, forma guztietan: akademikoan, pertsonalean eta profesionalean. Haien alderdi positiboak indartzen eta negatiboak gainditzen lagundu dezake jarraipenak.

Gauzatzeko aukerak

Tutoretzen bidez gauzatzea da modurik eraginkorrena, bakarka nahiz talde txikietan. Hala ere, behaketa eta haien lanen jarraipenak oso lagungarriak dira. Oro har, jarraipen estua, tutoretza lanari nagusiki atxikita, honako alderdi hauekin lotzen da: ikasleen gertuko ezagutza, talde txikiak, saio pertsonalizatuak, tutoretza plangintza sendo eta egituratu bat edo orientazio lan eraginkorra. Hainbat baliabide erabil daitezke horretarako: portfolioak, egunerokoak, ikaste kontratuak, elkarrizketak...

Sakontzeko

Estrategias y recursos para la acción tutorial:
https://estudis.uib.cat/digitalAssets/214/214042_estrategias-y-recursos.pdf

Rodríguez-Espinar, S. (coord.). (2012). Manual de tutoría universitaria:
<https://octaedro.com/wp-content/uploads/2019/02/10162.pdf>

19. Ikasleen motibazioa



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Motibazioak eragin zuzena du ikasleen ikaskuntza prozesuetan. Oro har, bi motibazio mota bereizten dira: alde batetik, barne motibazioa, edo norbanakoak berez duen motibazioa zeregin bati ekiteko; eta, bestetik, kanpoko motibazioa, edo norbanakoarengandik at eratorritako pizgarriek sorrarazitakoa. Mota biak kontrajarriak izateak urrun, ikaslearen barne zein kanpo motibazioak bat egiten dutenean sortzen da ikaskuntza esanguratsua.

Gauzatzeko aukerak

Ikasleek euren ekimenetik sortutako proiektuak garatzeko aukera eskaintzea. Horretarako, Barcamp (edo deskonferentzia) izeneko dinamika ekar daiteke ikasgelara, non ikasle bakoitzak minutu batez aurkeztuko duen ideia edo proposamen bat eta ateratako gai edota proposamenekiko interesaren arabera taldekatzeak egingo diren.

Sakontzeko

Starko, A. J. (2013). *Creativity in the classroom: Schools of curious delight*. Routledge.

Dennerlein, S., Gutounig, R., Kaiser, R., Barreiros, C. & Rauter, R. (2015, September). *Knowledge strategies in organizations: A case for the barcamp format* In European Conference on Knowledge Management (222. or.). Academic Conferences International Limited.

Hennessey, B. (2016). *Cultivating Intrinsic Motivation and Creativity in the Classroom*:
https://www.youtube.com/watch?v=v2eRnhBvI_I

20. Ikaskuntza esperimentalak



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Ikaskuntza esperimentalak aproposa da norberaren esperientziatik ikasteko gaitasuna garatzeko. Ikaskuntza esperimentalarekin, ikasleak rol aktiboa izan behar du bere ikaskuntza prozesuan. Esperientziako ikaskuntzari lotutako jardueren bidez, ikasleak gai dira kontzeptuak hobeto ulertzeko, sormen handiagoa erakusteko aukera izaten dute, eta ikaskuntzaren inplikazioa areagotu egiten da.

Gauatzeko aukerak

- Ikaskuntza zerbitzua
- Ekintzaileak ikasgelara eraman, beren esperientziak hitz egin dezaten
- Hainbat adinetako ikaskideen tutoretza
- Bisitak egin azterlanarekin erlazioan tutako lekuetara
- Gamification

Sakontzeko

Kolb, D. A. (2014). *Experiential learning: Experience as the source of learning and development*. FT press.


Think Global School.
<https://thinkglobalschool.org/about/>

Mondragon Team Academy – LEINN. (2020). LEINN nuevos tiempos, nuevos profesionales:
https://www.youtube.com/watch?v=_1i-bGSV-xo

21. Ikerketa lana



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Ikerketa esperientzia ikasleengan eragin handia duen praktika bat da. Ikerketan diharduten ikasleek trebetasunak lortzen dituzte arazoen ebazpenean eta ikerketan. Hori lagungarria da esperientzia hezitzaile globalagoak eta esanguratsuagoak izateko. Gainera, ikasketekiko konpromiso handiagoa eta ikasketekin jarraitzeko aukera handiagoa dute ikerketan murgiltzen diren ikasleek.

Gauzatzeko aukerak

- Arazoen ebazpenari begirako ikerketa lanak
- Udako ikerketa programak
- Bititak egitea unibertsitateetara eta ikerketa taldeetara
- Zientzia asteak
- Museo bititak

Sakontzeko

Gazteentzako zientzia-bizipenen labera:
<https://bizilabe.elhuyar.eus/eu/bizilaberi-buruz>

Lopatto, D. (2010). Undergraduate Research as a High-Impact Student Experience:
<https://www.aacu.org/publications-research/periodicals/undergraduate-research-high-impact-student-experience>

STEAM Euskadi estrategia:
<http://steam.eus/es/estrategia-euskadi/>

Parker, J. (2018) Undergraduate research, learning gain and equity: the impact of final year research projects. *Higher Education Pedagogies*, 3:1, 145-157, DOI: 10.1080/23752696.2018.1425097

22. Informazioaren trataera eta kudeaketa kritikorako trebetasunak



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Informazioaren trataera eta kudeaketa kritikoa gakoak dira pentsamenduaren garapenerako. Pentsaera kritikoa esker, norberaren pentsamenduaren kalitatea hobetzen da, edozein gai, eduki edo arazoren aurrean. Pentsamendu kritikoa garapenak balio du informazioa argitzeko, informazioaren fidagarritasunari buruzko iritzia emateko eta informazioa bera ebaluatzeko.

Gauzatzeko aukerak

- Informazioa argitzeko: galderak egitea, definizioak ulertzea eta epaitzea, argudiaketa, arazo edo zeregin baten elementuak bereiztea, arazo garrantzitsuak identifikatzea eta argitzea...
- Informazioaren fidagarritasunari buruzko iritzia emateko: informazio iturri baten sinesgarritasuna epaitzea, informazio baten sinesgarritasuna epaitzea, oinarri implizituak identifikatzea, argudiatzearen balio logikoa epaitzea...
- Informazioa ebaluatzeko eta aztertzeko: ondorioztatzea, orokortzea, hipotesiak egitea, argudiatzea, birformulatzea, pertsonalizatzea, adibideak jarzea...

Sakontzeko

Madariaga, P. & Schaffernicht, M. (2013). Uso de objetos de aprendizaje para el desarrollo del pensamiento crítico. *Revista de Ciencias Sociales (Ve)*, XIX (3), 472-484. <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=28028572010>

Mota de Cabrera, C. (2010). Desarrollo del pensamiento crítico a través del discurso argumentativo: una experiencia pedagógica en un curso de lectura y escritura. *Entre Lenguas*, 15, 11.

23. Ingurune aproposen diseinua



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Ikaskuntza prozesuak kanpo aldagaien menpe daude, eta espazioaren antolaketak eragina du. Horregatik, garrantzitsua izan ohi da unean uneko beharretara modu errazean molda daitezkeen espazioetan lan egitea. Espazio horiek aukera eman behar lukete talde lanerako, esperimentaziorako, aurkezpenak egiteko, atsedean hartzeko eta sozializatzeko, besteak beste.

Gauzatzeko aukerak

Ikasleek ezagutzen dituzte euren beharrak inork baino hobeto; horregatik, laborategi itxurako inguruneak sor daitezke euren laguntzarekin. Horretarako, lagungarriak dira mihise funtzioa beteko duten horma zuriak, erraz mugitu daitezkeen altzariak, kolore biziko objektuak, ekipamendu teknologikoa edota ikasleen objektu pertsonalak (argazkiak, oroigarriak) ipintzeko espazioak.

Sakontzeko

Lorenzo, R. (2017). How diversity makes teams more innovative:
https://www.ted.com/talks/rocio_lorenzo_how_diversity_makes_teams_more_innovative


Nicolai, C., Klooker, M., Panayotova, D., Hüsam, D., & Weinberg, U. (2016). Innovation in creative environments: Understanding and measuring the influence of spatial effects on design thinking-teams. In Design Thinking Research (125-139. pp). Springer, Cham.

EDUTOPIA (2017). EDhub: Building a 21st Century Space to Transform Learning:
<https://www.youtube.com/watch?v=cFyaZtW2iAY>

24. Irakasle erraztailea



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Informazio transmisio hutsetik haratago, ikaskuntza errazteak ikaslearen usteak kolokan jartzea, eztabaida sustatzea eta arazo-uneetan irtenbideak bilatzeko bitartekoak eskaintzea dakar. Erraztailea taldearen unean uneko beharren araberrako metodo, prozesu edota teknika egokienak bilatzen ahaleginduko da, eta haren funtsezko eginkizuna ideien arteko lotura egitea izango da, betiere eztabaidatik at geratuz, ikasleak ahalduzko.

Gauzatzeko aukerak

Astebeteko erronka bat planteatu, egunez eguneko plangintza zehatz batekin, argi eta garbi zehaztuz ataza guztiak, helburuak, egin beharrekoak, beharrezko materiala eta epeak.

Sakontzeko

Vogt, J. (2010). The Art of Facilitation: Changing the Way the World Meets:
<https://www.youtube.com/watch?v=ZfZOvSU8PJE>


García Vila, E. & Sepúlveda Ruiz, M.P. (2019). El docente como guía y facilitador del aprendizaje reflexivo y crítico del alumnado:
<https://labur.eus/8MPtS>

Knapp, J., Zeratsky, J. & Kowitz, B. (2016). *Sprint: How to solve big problems and test new ideas in just five days*. Simon and Schuster.

25. Kalitatezko feedbackak



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Egiten duenaren inguruko feedbacka oso garrantzitsua eta baldintzatzailea izan daiteke ikaslearentzat. Pertseberantziaren ikuspuntutik, helburuei eusteko bidean, egiten ari denaren feedbacka garrantzitsua da, ondo egindakoak eta erronkak identifikatzeko eta, horrenbestez, ikaskuntzarako eta norberaren gaitasunen garapenerako bidea eskaintzen baitu.

Gauzatzeko aukerak

- Bakarka, talde txikietan, kofeedbackak eta heterofeedbackak, online (bideo-dei, audio eta bideo bidez edota idatziz) edo zuzenean...
- Ikaskideek, irakasleek eta kanpo eragileek eman dezakete feedbacka.

Sakontzeko

Boud, D. & Molloy, E. (2015). El feedback en educación superior y profesional: Comprenderlo y hacerlo bien. Narcea.


Docentes: 15 formas de dar feedback a los estudiantes: <https://noticias.universia.com.ar/educacion/noticia/2017/02/09/1149437/docentes-15-formas-dar-feedback-estudiantes.html>

Santana, P.J., Jiménez, F., Pintor, P., & Hernández, V.M. (2017). Cómo implicar al alumnado en la evaluación formativa. El valor del feedback: <http://riull.ull.es/xmlui/handle/915/6107>

26. Lankidetzazko ikaskuntza-metodoak



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Lankidetzazko ikaskuntza da ikasleengan komunikazio-trebetasunak eta -gaitasunak eta gizarte elkarreragina garatzen laguntzen duen estrategia didaktiko bat. Ikasleek ideiak, esperientziak, informazio iturriak eta ikaskuntzak partekatzeko espazioak dituzten heinean, beren garapena eta ikaskuntza aberastu egiten da. Aldi berean, lankidetzazko ikaskuntza metodoek, elkarreraginaz gain, jarduera gogoetatsua sustatu behar dute, ikaskuntza bera modu esanguratsuan gauzatzeko ezinbestekoa baita prozesu kognitibo sakonetatik igarotzea.

Gauzatzeko aukerak

Arazoen, egoeren eta bizitza errealeko adibideen azterketa sakona proposatu, proiektu edo arazo errealetan oinarritutako ikaskuntza kooperatiboko metodoen bidez.

Sakontzeko

Bilbatua, M., Martínez, A., Artetxe, A., Arregi, X., & Usabiaga, A. (2018). *IKASKIDE Taldeak: kooperazio testuinguruak hezkuntzan: Proiektuaren oinarriak, metodologia, esperientziak eta tresnak*. Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseilua


Guerrero, H., Polo, S., Martínez, J. & Ariza, P. (2018). Trabajo colaborativo como estrategia didáctica para el desarrollo del pensamiento crítico. *Opción*, 86, 959-986.

Moreno-Pinado, W. E., & Velázquez Tejada, M. E. (2017). Estrategia didáctica para desarrollar el pensamiento crítico. *REICE. Revista Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 15(2), 153-181. <http://repositorio.usil.edu.pe/handle/USIL/2415>

27. Nazioarteko esperientzia



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Talentua sustatzeko, gomendatzen da ikasleek nazioarteko esperientzia izatea. Beste kultura, hizkuntza eta pertsona batzuk ezagutzea eta horiekin elkarrekintzan aritzea hazkuntza pertsonalerako bideak dira. Onurak askotarikoak dira, baina bereziki ikasleen sormenari, ekintzailetasunari eta malgutasunari eragiten die nazioarteko esperientzia izateak.

Gauzatzeko aukerak

- Elkarrekintzak egitea nazioarteko ikasleekin, bideo dei edo posta elektroniko bidez
- Online bidezko lankidetzak proiektuak nazioarteko beste ikasle batzuekin
- Trukeak nazioarteko ikastetxeetako ikasleekin
- Erasmus+ programa
- Praktikak atzerrian

Sakontzeko

Europako Batzordea. Ikasleentzako mugikortasun programa:
https://ec.europa.eu/spain/education/mobility-programmes-for-students_es#a3


European Commission. (2019). *Erasmus+ Higher Education Impact Study*. Luxembourg: Publications Office of the European Union:
<https://op.europa.eu/en/publication-detail/-/publication/94d97f5c-7ae2-11e9-9f05-01aa75ed71a1>

Vinagre Laranjeira, M. (2015). El desarrollo de la competencia intercultural en los intercambios telecolaborativos. *Revista De Educación a Distancia (RED)*, 41.
<https://revistas.um.es/red/article/view/236391>

28. Norbanakoaren autonomiatik lankidetzara



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Lankidetzazko ikaskuntzari esker, ikaslearen alderdi pertsonalaren garapena, lankidetzarako gaitasunak eta gizarte trebetasunak lantzen dira. Esate baterako, autogestiorako eta lidergorako gaitasuna, jarrera aktiboa, beste ikuspegi batzuk ulertzea, pentsamendu kritikoa, buru irekitasuna, entzuten eta adierazten ikastea eta talde lanean jarduteko hobekuntza.

Gauzatzeko aukerak

Ikasleen ikaskuntza hobetzeko elkarlanerako bikoteak edo talde txikiak eraiki behar dira, elkarren artean planteatzen diren arazo-egoeren irtenbidea aurkitzeko, zereginak aurrera eramateko edo kontzeptu berriak ikasteko.


Sakontzeko

Clifford, M. (2020). 20 Collaborative Learning Tips And Strategies For Teachers
<https://www.teachthought.com/pedagogy/20-collaborative-learning-tips-and-strategies/>

Recursos aula (2019). El aprendizaje colaborativo en clase:
<https://www.youtube.com/watch?v=TllpXkkkFhA>

Barkley, E. F., Cross, K. P. & Major, C. H. (2005). *Collaborative learning techniques: A handbook for college faculty*. San Francisco, CA: John Wiley & Sons.

29. Norberaren zaintzaren kultura eta praktika



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Norberaren zaintzaren kultura garatzeko talentuak funtsezko lekua izan behar du osasun emozionalari eta jokabideari eusteko eta bizi prozesuak hobetzeko. Gaur egun, mendebaldeko gizarteetan, nahikoa ebidentzia lortu da baieztatzeko zenbait ohiturak (dieta osasungarri bat, ariketa erregularra, toxikorik eza, emozioak erregulatzen ikastea, baikortasunez bizitzea eta gizarte harremanak sustatzea) eragin positiboa dutela osasun egoera ezin hobea lortzeko.

Gauzatzeko aukerak

- Gorputz lanketa; norberarentzat egokitutako edozein kirol, ariketa, diziplina.
- Osasun mentala eta emozionala; norberarentzat indartzaileak diren ekintzak; margotu, musika egin, irakurri, meditatu, sozializatu...

Sakontzeko

Bizkaia. Zaintza Eskola. Norbere burua zaintzeko estrategiak:
<https://labur.eus/Bv744>


Adimen emozionala jardunean: gazteekin harreman hobea izateko tresnak
https://www.gazteukera.euskadi.eus/r58-ovjconte/eu/contenidos/noticia/irakur_gida_adimen_emozionala/eu_def/index.shtml

Morales Ortiz, J., Muñoz Martínez, S., Pérez Sánchez, S. (2019). *Abre tu mente en modo positivo. Promoción de salud mental en jóvenes: guía para docentes y familias*. Asociación Salud Mental de Molina y Comarca.

30. Proiektu soziokomunitarioak



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Ikaskuntza Zerbitzuaren bidez garatzen diren proiektuek aukera ematen dute autonomia pertsonalaren mailan eta komunitateko kide izatearen ulermen mailan sakontzeko. Ikasleengan konfiantza garatzen laguntzen du, ikaskuntza sakonagoa dakar, eta ikasleek (er)aldaketa sozialetan parte hartzea bultzatzen du. Besteak beste, honako alderdi hauetan laguntzen du: harremanak eraikitzen, desberdintasunei buruz hitz egiten, elkarrengandik ikasteko irekita egoten eta modu kritiko eta gogoetatsuan konpromisoa hartzen mundu justuago baten alde jokatzeko.

Gauzatzeko aukerak

Ikasleen kezka edo interes soziokomunitarioetatik (kulturalak, ekologikoak, ekonomikoak...) abiatuta, elkarlanean, proiektu bat sortu, eraiki eta kudeatu behar dute ikasleek. Identifikatutako erronka edo arazoari erantzuna emateko helburuarekin bat egin dezaketen komunitateko elkarte, eragile, enpresa, pertsona edo/eta erakunde batzuekin batera lan eginez garatu beharko litzateke proiektua, ongizate sozial orokorraren ikuspegiarekin. Egindako lanaren eta ekarpen sozialaren berri eman beharko litzaiotke komunitateari.

Sakontzeko

Battle, R. (2019). *Guía práctica de aprendizaje-servicio*. Santillana Educación: <https://roserbattle.net/wp-content/uploads/2018/09/Guia-practica-ApS.pdf>

Deeley, S.J. (2016). *El aprendizaje-servicio en educación superior: teoría práctica y perspectiva crítica*. Narcea.

Puig Rovira, J.M. (2018). Las 10 mejores páginas sobre aprendizaje-servicio: <http://www.eduforics.com/es/las-10-aprendizaje-servicio/>

Battle, R. (2011). Aprendizaje/servicio: aprender haciendo un servicio a la comunidad: Roser Battle at TEDxBarcelona: <https://www.youtube.com/watch?v=Bx29nbHx3F4>

31. Proposamenen helburua



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Ikasleei eskainitako proposamenak helburu argi bat izatea garrantzitsua da beren ikaskuntza prozesua ahalik eta aberatsena izateko. Horrez gain, pertseberantziari dagokionez, helburu argiak izatea ezinbestekoa izango da proiektua, lana eta proposamena denboran zehar mantentzeko.

Gauzatzeko aukerak

Edozein proposamen egiterakoan, lan horren helburu zehatza zein den argi utzi behar da. Ikasleak hori jakinda, horren bila joatea errazagoa izango da.

Sakontzeko

Antúñez, S., Del Carmen, L., Imbernón, F., Parcerisa, A., & Zabala, V. A. (2010). *Del Proyecto Educativo a la Programación del Aula*. GRAÓ.


Definición de los objetivos de aprendizaje:
https://www.ubu.es/sites/default/files/portal_page/files/b-ayuda-para-definir-los-objetivos-de-aprendizaje.pdf

Salcedo, H. (2011). Los objetivos y su importancia para el proceso de enseñanza-aprendizaje. *Revista de Pedagogía*, 91(8),113-130.
<https://www.redalyc.org/pdf/659/65926549007.pdf>

32. Prozesuen garrantzia: Design Thinking



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Proiektu sortzaile konplexuetan hasten direnak galdu egiten dira prozesuaren punturen batean. Horregatik, garrantzitsua da bidaiaren une zail eta ilunenetan aurrera egiten laguntzeko prozesu espezifikoak ezagutzea. Prozesu sortzailea pentsamendu mota konbergentearen eta dibergentearen arteko elkarlanaren emaitza da, eta, ondorioz, garuneko bi hemisferioen arteko elkarlana eskatzen du. Horregatik, bi pentsamendu motak batuko dituen prozesuak oso lagungarriak dira sormena sustatzerakoan.

Gauzatzeko aukerak

Design Thinkingak ibilbide oparoa izan du azken urteetan hezkuntzan, eta erakutsi du baduela sormena lantzeko potentziala. Erroñkei erantzun berritzaile bat ematea helburu duen metodo, metodologia edota prozesu gidatuari deritzo Design Thinking, eta Stanforden sortutako jatorrizko ereduak honako fase konbergente eta dibergente hauek kateatzen ditu: enpatia, definizioa, ideazioa, prototipazioa eta frogia.

Sakontzeko

Mohorte (2020). Esto es lo que Google ha aprendido sobre cómo perfeccionar las sesiones de brainstorming: <https://labur.eus/KiHK6>


Design Thinking for Educators Toolkit: <https://designthinkingforeducators.com/toolkit/>

Kelley, D. (2012). ¿Cómo construir tu confianza creativa? https://www.ted.com/talks/david_kelley_how_to_build_your_creative_confidence?language=es

33. Talde lanean trebatzeko jarduerak



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Ikaskuntza kooperatiboaren bidez garatzen diren aktibitateek ikasleei aukera ematen diete talde lanerako eta gizarte trebetasunerako beharrezko gaitasunak garatzeko. Aukera ematen dute interdependentzia positiboa, erantzukizun indibiduala, berdintasunezko partaidetza, erabaki partekatuak edo/eta norbanakoaren onarpenetik elkarlaguntza bultzatzeko.

Gauzatzeko aukerak

Ikasgelako taldean sortutako talde heterogeneo txikietan ikasleei elkarlanean eraikitzeko lanak proposatzen zaizkie, eta, haien garapenerako, modu indibidual eta kolektiboan lan egin behar dute norbanakoaren eta besteen ikaskuntza maximizatzen.

Sakontzeko

Aramí Prat, J. et al. (2020). *El aprendizaje cooperativo en la universidad del siglo XXI. Propuestas, estrategias y reflexiones*. Graó.

Bilbatua, M., Martínez, A., Artetxe, A., Arregi, X., & Usabiaga, A. (2018). *IKASKIDE Taldeak: kooperazio testuinguruak hezkuntzan: Proiektuaren oinarriak, metodologia, esperientziak eta tresnak*. Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseilua

Ikaskuntza Kooperatiboa garatzeko urratsak:
<http://www3.gobiernodecanarias.org/medusa/ecoescuela/pedagogic/aprendizaje-cooperativo/>

Johnson, R. T., Johnson, D. W. y Holubec, E.J. (1999). *El aprendizaje cooperativo en el aula*. Buenos Aires: Paidós.

Teachings in Education (2017). Cooperative Learning Model: Strategies & Examples:
https://www.youtube.com/watch?v=cnkKHL_dyGE

34. Tutoretza eta orientazioa



Zertarako bereziki?



Justifikazioa

Ikasleen jarraipen estua jorratzerakoan tutoretza ere aipatu bada ere, oraingo honetan, tutoretzaren eta orientazio lanaren beste funtzio bati heldu nahi zaio. Oso garrantzitsua da, jarraipena egiteaz gain, etorkizunari begira ikaslea orientatuko duen pertsonaren rola. Ikaslea bere ibilbide akademiko zein pertsonalaren jabe dela aitortuta ere, lagungarria izan dakiokete etorkizunari begirako aukerak eta erronkak identifikatzen lagunduko dion pertsona bat izatea. Figura hori lagungarria izan daiteke ikaslearen pertseberantziari begira.

Gauzatzeko aukerak

- Orientazio programen indartzea
- Norberaren profilaren ezaugarrien azterketa
- Bisita gidatuak egitea enpresa eta erakundeetara
- Harreman estua inguruko eragileekin

Sakontzeko

Cabrera, M. (2020). Modelos de orientación vocacional para la elección de la carreras de formación universitaria. *Formación Docente. Revista iberoamericana de educación*, 3. <https://doi.org/10.31876/ie.v3i3.46>

Del Río, D., & Martínez, M. C. (2020). *Orientación educativa y tutoría*. Sanz y Torres: Madril.

Sánchez, P. P., López, M. M. & Alfonso, Y. (2018). La orientación educativa en la actividad pedagógica profesional del docente universitario. *Conrado*, 14, Epub. http://scielo.sld.cu/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1990-864420180005000050

